

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako Udaltzaren 2019ko apirilaren 10eko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez laguntza deialdia egiten baita 2019an euskara ikasteko

BDNS (identifikatzailea): 450302

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

Deialdiaren xedea

2018-2019 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (ez ordea joan-etorri, mantenu eta ostatu gastuak), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

Onuradunak

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira, besteak beste:

a) Donemiliagako udalerrian erroldaturik egotea, 2018-2019 ikasturtea hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez; baldin eta, ikasturtean zehar, erroldan baja eragiten bada, dirulaguntza erroldaturik emandako denboraren proportzioan emango da.

b) Izena ematean, 16 urtetik gora izatea.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea.

Oinarri arauak

Donemiliagako Udaltzaren 2019ko apirilaren 10eko bilkuran onetsiak.

Zenbatekoa

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak 2019ko aurrekontu orokorreko 33548200 partidaren kredituari egotziko zaizkio. Aurrekontu partida hori 2.000 euroz hornituta dago.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Donemiliagako udaletxean aurkeztu beharko dira, 2019ko urriaren 31ra arte.

Erdoña, 2019ko apirilaren 15a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO